



Martxan dago Arabako Bertso Kuadrilla artekoa

14 Kuadrillako Bertso Egun, finalurrekoak eta finala izango dira ekimenean egingo direnak; 100 parte hartzaile baino gehiago izango dira.

Indartsu dator 2025eko Arabako Bertso Kuadrilla artekoa. Zortzigarren edizioa izango da aurtengoa, eta saio ugari izango dira oraingoan ere. 14 talde egongo dira, eta talde bakoitzak bere herri edo eskualdean Kuadrillako Bertso Eguna antolatuko du. Guztira, 14 kuadrillako bertso egun egingo dira Arabako 8 eskualdeetan; denera, 14 ekimen. Eskualdeak, hurrengoak: Aiaraldea, Arabar Errioxa, Mendialdea, Trebiñu, Añana, Lautada, Gorbeialdea (lau talde) eta Gasteiz (lau talde). Bertso egunak amaitutakoan, 4 finalurreko eta finalarekin biribilduko dute Arabako Bertso Kuadrilla artekoa.

Taldeak 9-12 lagun ez osatuta egongo dira: 3-6 bertsolari, gai-jartzailea, epailea, audio grabatzailea, kronikagilea, argazkilaria... egongo dira talde bakoitzean. Guztira 76 lagun bertsoan, 17 epaile lanetan, 21 lagun gai-jartzaile lanetan eta beste hamaika laguntzaile.

Urtarrilaren 18an aurkeztu zuten egitasmoa Gasteizeko Amaia zentroan. Bertan bildu ziren Bertso Kuadrilla

artekoan parte hartuko duten 14 taldeetako ordezkariak. Egitasmoaren izaera kolektiboan eta bertsolaritza herrikoian oinarritutako egitasmoa dela azpimarratu dute antolatzaileek.

Saioen egutegia eta informazio gehiago www.bertsozale.eus atarian topatuko duzue.

Kuadrillako Bertso Egunak

- Arabar Errioxako Bertso Eguna: urtarrilak 22, Oion.
- Gasteizko Bertso Egunak: otsailak 1, 14 eta 20, Gasteiz.
- Aiaraldeko Bertso Eguna: otsailak 1, Areta.
- Gorbeialdeko Bertso Egunak: otsailak 1, Aramaio; otsailak 7, Aramaio; otsailak 14, Legutio; otsailak 21, Izarra.
- Lautadako Bertso Eguna: otsailak 7, Agurain.
- Añanako Bertso Eguna: otsailak 8, Kuartango.
- Mendialdeko Bertso Eguna: otsailak 15, Lurkoi-Elortza.
- Trebiñuko Bertso Eguna: otsailak 22, Argantzun.

Finalerdiak

- Finalerdia: otsailak 28, Narbaiza.
- Finalerdia: martxoak 9, Aramaio.
- Finalerdia: martxoak 15, Amurrio.
- Finalerdia: martxoak 23, Gillerena.

Finala

- Apirilak 5, Gasteiz.



ENEKO LAZKOZ MARTINEZ

V. IRUÑEKO BERTSO PAPER LEHIAKETAKO IRABAZLEA HELDUEN MAILAN

Doinua: *Harrotasunik bada*

Batzuetan ahaztuak ezin gogoratu, besteetan ahanztura ezin geroratu. Zenbatetan ez ote naiz gaez lokartu sentimenduak ezin ongi kolokatu? Nahiz eta kontatu, ez zaitez tronpatu! Ez nuke nahi biktima moduan kokatu baina ez zait bitzitza erreza tokatu.

Sorta osoa bertsozale.eus atarian.



Urtarrilaren 18an aurkeztu zen Arabako Bertso Kuadrilla artekoa, Gasteizen. //XDZ.

Eskatu *Bapatean 2024* liburua doan!

Bertsozale Elkarteko bazkideok *Bapatean 2024* bertso eta informazio bilduma doan eskuratzeko aukera duzue; galdea egiteko epea zabalik dago, otsailaren 10a bitarte.

2024ko *Bapatean*ek dakartza, besteak beste, Euskal Herri osoko bertso plazei buruzko informazioa, eskualdearen arabera saio kopuruak, aldizkako saio zein sariketen berri eta Xenpelar Dokumentazio Zentrora (XDZ) grabatuta iritsi diren bertsoaldien hautaketa bat. Lurraldetasuna, generoa, belaunaldiartekotasuna, saio mota, doinuen berritasuna... bezalako aldagaien baitan bereizitako bertsoaldiak dira, beti ere, bertsolari bakoitzaren saio kopuruan oinarrituta.

Beraz, Bertsozale Elkarteko bazkide izanez gero eta *Bapatean 2024* paperean eta doan eskuratu nahi izanez gero, aski duzu bertsozale.eus atarian dagoen izen-emate fitxa betetzea, otsailaren 10a baino lehen.

Horrezaz gain, bertsoaldiei dagozkien audioak eskuratu nahi izanez gero, idatz xenpelar@bertsozale.eus helbidera ze bazkide zaren eta zure eskaera adieraziz; ahalik lasterren bidaliko dizkizugu bertsoaldiak.

Aurtengo edizioari Unai Mendizabal Jauregik egin dio aitzinsolasa, *Plazaren atzean* izeneko. Bertsoei dagokionez, *Bapatean*

2024k 687 bertso dakartza; 74 bertso saiotako 88 bertsoalditan multzokatua. Gainera, bertsoaldi bakoitzari dagokion informazioa ematen da: gai, doinu, parte hartzaile, antolatzaile... bai eta saio bakoitzaren testuinguruari buruzko zertzeladak ere.

Bapatean 2024 liburuko bertsoaldien corpusak herritarrek antolatutako bertso saioetan bat-batean kantatutako hainbat bertso biltzen ditu; txapelketakorik ez dakar, ez bada herrialdeetako txapeldunen agurra edo gazte sariketatan kantatutakoak.

Anitx jenderen lanaren emaitza da *Bapatean 2024a*. Borondatezko grabatzaileei esker jaso ahal izan ditugu ehunka bertsoaldi eta zenbait potret. Eskerrik beroenak beraz, saio erdi, osorik edo hamaika grabatu, zein argazkiren bat egin eta XDZra helarazi dizkiguzuenoi.

Proiektua gauza zedin Gipuzkoako Foru Aldundiaren *Oreka* eta Eusko Jaurlaritzaren ondare immaterialaren azterketarako dirulaguntza jaso ditu Bertsozale Elkartek.



Bapatean 2023 liburuaren aleak. //XDZ

Bertso Udalekuetako hezitzaileen izen-ematea hasiko da otsailaren 6an

Begirale, zuzendari eta sukaldari aritu nahi dutenek izena emateko aukera izango dute; baita, begirale praktikak egin nahi dituztenek ere.

Urtero legez, aurtengo udan ere Bertso Udalekuak izango ditugu eta prestaketa lanetan hasita gaude dagoeneko. Otsailaren 6an irekiko dugu begirale, zuzendari, sukaldari eta begirale praktikak egin nahi dituztenentzako izen-emate epea, eta otsailaren 16ra arte egongo da irekita. Ondoren etorriko da haur eta gaztetxoien izen-ematea.

Ohiko modura, izen-ematea bertsozale.eus webgunearen bidez egin ahal izango da. Behin izen-emate epea bukatuta, martxoan emango dugu lantaldeen eta txanden berri.

Bertso Udalekuetako hezitzaileak prestaketa asteburuan elkartuko dira ondoren, maiatzaren 9tik 10era Astigarragako Santiagomendi aterpean (Gipuzkoa). Bertan parte hartzea ezinbestekoa izango da, Bertso Udalekuen antolaketa ona ziurtatzeko.

Gazte parte-hartzaileen izen-ematea

Gaztetxoien izen-ematea aurrerago izango da: martxoaren 3tik aurrera, bertsozale.eus webgunean. Laster emango dizkizuegu xehetasun guztiak.



Hezitzaileen izen-ematea otsailaren 6an hasiko da. //XDZ

Hirugarren Aitor Sarasua Bertsopaper Lehiaketako izen ematea zabalik da

Otsailaren 21era arte dago bertso idatziak bidaltzeko aukera. Behin epea itxita, martxoaren 14an jakinaraziko dituzte irabazleak.

Hirugarren edizioa du aurten Aitor Sarasua zenaren omenez antolatzen den bertsopaper lehiaketak. Otsailaren 21a bitarteko epea dago lanak aurkezteko, eta, ohi duen legez, hiru maila ditu: haurrena, gazteena eta helduena. Behin lan guztiak jasota, martxoaren 14an emango dute epaiaren berri.

Adin guztietako jendea jartzen du bertsoan, doinu, gai eta neurri librean, Aitor Sarasua Bertsopaper lehiaketak, azaldu bezala, hiru maila baititu. Maila bakoitzak, ordea, bere eskakizunak ditu: haurren mailan (2012 urte artekoak) bi eta lau bertso artean idatzi beharko dituzte; gazteenean (2008 eta 2011 urteen artekoak) lau eta zortzi bertsoen artean; eta helduen mailan (2007 urte

aurretikoak) sei eta hamar artean. Lanak aurkezteko sarasua.lehiaketa@gmail.com helbidera bidali behar dira, eta martxoaren 14an jakinaraziko du epaimahaiak nortzuk izan diren irabazleak.

2021ean antolatu zuten lehen aldiz, Bertsoari Lagunak Elkartek eta Aretxabaletako Udalak elkarlanean, Aitor Sarasua Bertsopaper Lehiaketa. Izan ere, Aretxabaletan jaioa, Almen bertso eskolako kide izan zen gaztetatik. Bere bailaraz gain, Ipar Euskal Herrian ere euskararen eta bertsoari laguntzen alde lan handia egindako pertsona da Sarasua: Seaskako ikastoletan bertso irakasle aritu zen, eta Bertsoari Lagunak Elkarteko lehendakari ere izan zen.



Puntu jarrita

MALEN ALZUART ARANBURU

“Etenik ez dezan izan harilkatutako sokak gogora ekar ditzagun Luzia Goñiren sortak bere gibeletik datoz gure ausardizko notak aldarrikatuz bertsoa bizitzeko modu motak”.

Lerro horiek kantatuz hasi genuen 2024ko Bardoen finala, Alazne. Zein goxo ateratzen garen zu bezalakoen eskutik plazara oholtzan ia deus aritu ez arren bertso mundua ikaragarri miresten eta segitzen dugunak. Garrantzitsua iruditzen zait bertsoa bizitzeko milaka modu daudela aldarrikatzea. Alabaina, beldur naiz hitz horiek ez daitezkeen gaizki konpreni: bai, bertsoa bizitzeko mila modu daude eta zilegi da jendaurrean kantatu nahi ez izatea, baina oholtzan egon nahi lukeen jende anitz ez da igatera ausartzen.

Bakarka eginen ez zenukeena (ez oraindik bederen) taldean egitera ausar zaitezzen balio dute taldekako egitasmoek. Bertsoan aritzeko ezinbestekotzat ditut halako ingurune goxoak. Izan ere, batzuetan uste dugu ez dugula zer kontatu, ez dugula bertsoari zer eskaini, ez garelara nor. Bardoek eta gisako ekimenek eraisten dituzte funtsik gabeko ideia suntsizaille horiek guziak, kea bailiran hitzak zintzurretik beheiti bulkatuta itozten gaituztenak. Uste dut azken txapelketan talde bakoitzak beretik eman duela, bakoitzak bere moduan izan duela zer erran, eta eskerrak. Izan ere, zintzurra, kritikotasuna eta samurtasuna baditugu, zergatik isildu?

Bidelaugun izan ditudan Bardoek, besarkada handi bat. Ezin ederragoa izan da nola begiratu eta aditu dugun denok elkar: errespetuz, maitasunez, miresmenez. Hala, uste dut lehia gibelean utzi dugula garrantzitsuagoa eta eraginkorragoa iruditu zaigunari bide egiteko: begiruneari, alegia. Zaintza izan dugu lur eta oinarri, eta ongarrria ona delarik aise loratzen gara denok, ez da hala?

Ipuin-kontaktetan bezain fin aritzen da bertsoan lagun eta bertsoakide dudana Amaia Elizagoien. Amaia, maiz elkartu gara Bardoen desenkusan Oronozko zure balkoian, eta izan dugu elkarri pozak eta minak kantatzeko tartea. Ipuinek kontaktzea dute helburu. Eta bertsoak? Zer kontaktzeko balio du bertsoak?

Koplak

Nafarroako Bertso Eskoletan izena-emateko aukera, zabalik

Ikasturte hasieran egindako bertso eskolen eskaintza berritzeko, bigarren lauhilekorako izen-emateak ireki ditu Nafarroako Bertsozale Elkartek. Haur zein helduentzako 33 talde eskainiko dira eta, otsailean hasi eta maiatz bukaera bitarte, astean behineko maiztasunaz elkartuko dira. Izen-ematea zabalik egongo da otsailaren 14ra arte.

Poto-Finixa



Bertsolari peto-petoak!

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Bizkaiko Neguko Bertso Barnetegia: otsailaren 21etik 23ra

Gautegiz-Arteagako Baratze Baserri Eskolan batuko dira DBHko lehen mailatik Batxilergoko bigarren mailara arteko ikasleak Neguko Bertso Barnetegian, otsailaren 21etik 23ra. Izen-ematea zabalik dago otsailaren 2ra arte eta www.bertsozale.eus atarian egon daitezke.

ITZAL (IKO) BAGINA

ZEHARKATU GAITUENA PERFORMATZEN

Info + | Lanku www.lanku.eus

PUBLIZITATEA